

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak haur eta nerabeen partaidetzarako proiektu pilotua abiarazi du

Seis udalerrik parte hartuko dute UNICEFen lankidetzaz antolatutako esperientzia honetan

Astelehena, 2018.eko ekainak 18

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok aurkeztu du gaur goizean UNICEFen lankidetzaz gauzatuko den haur eta nerabeen partaidetzarako proiektu pilotua. Esperientzia honako herri hauetan abiatuko da: Eguesibar, Burlata, Zizur Nagusia, Cintruenigo, Mendabia eta Castejon.

Ekimen hau, Nafarroako Gobernuko Herritarren Arreta eta Partaidetzarako Zerbitzuak administrazioaren erabaki nahiz ekintzetan herritarren inplikazioa areagotzeko xedez abiarazi duen Nafarroako Herritarren Partaidetza Bultzatzeko 2017-2019ko Planaren barnean sortu da. Biztanlerik gazteenak tokiko erakundeetan parte hartzera animatzeko asmoz, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak UNICEFek bultzatutako Haurrekin Adiskidetsuak diren Hirien Programa hartuko du oinarritzat ekimena bultzatzeko.

Ana Ollok kontseilariak adierazi duenez, "Partaidetza eta Demokrazia bereizita ezin uler daitezkeen errealitateak dira. Gizartea are demokratikoa izanen da, baldin eta, eskubide jakin batzuk bermatzeaz gain, herritarren partaidetza handiagoa eta kalitate handiagokoa ahalbidetu eta sustatzeko gaitasuna badu". Horren kariaz, parte hartzeko konfiantza eta gaitasuna jardunean eta pixkanaka-pixkanaka hartzen direla gogoratu ondoren, "haur eta nerabeen partaidetza bultzatu eta indartzeko" beharra nabarmendu du, gizarte demokratikoa lortzeko xedez.

Ekimen honetan pilotu gisa parte hartuko duten sei herrietako udalek Ede Fundazioaren aholkularitza teknikoaren bidez oraingo ekimean hasi eta 2019ko apirilera luzatuko den proiektu honen Talde Eragilea sortu ahal izateko. Hartara, prestakuntza eta planifikazioa lantzeko hiru jardunaldi egingen dira haur eta gazteen toki mailako partaidetza sustatzeko asmoz. Gainera, partaideen artean, online plataforma bat abiaraziko da sortuz doan informazioa eta dokumentazioa partekatu ahal izateko.



Pello Pellejero, Ana Olló eta Maider Gabilondo, gaur goizeko agerraldian.

Hauxe da Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak UNICEFekin batera gauzaturiko haur eta gazteen partaidetzarako lehendabiziko proiektua. “Gobernuak urratsak ematen hasi nahi du Nafarroan diskriminazioa gainditzeko. Proiektu honen bitartez, haurren partaidetzarako organoak abiarazi nahi ditugu toki mailan, adigabeek bizi diren udalerriei buruzko hobekuntza-proposamenak egiteko eta haiexei egokitutako salaketak eta kexak aurkezteko bideak irekiz, udal agintariei zerbitzuak hobetzen laguntzeko xedez”, UNICEFen Nafarroako koordinatzaile Maider Gabilondoren esanetan.

Horren harira gogoratu du “hainbat urte daramatzagula herriak Haurrekin Adiskidetsuak izateko proiektua bultzatzen, hurrek eta nerabeek Haurren Eskubideen Konbentzioan onartutako eskubide guztiak baliatzeko aukera izan dezaten, eta horietako bat dugu parte hartzeko eskubidea”. Bukatzeko, “sinergiak sortzeko aukera” dagoela esan du, eta horren ondorioz, “Nafarroako Gobernuaren ekimenarekin bat egin eta haren esanetara jarri ginen proiektua aurrera ateratzen laguntzeko”.

Komunikazio eta Harreman Instituzionaletako zuzendari nagusi Pello Pellejerok gogoratu du 2016an 24 partaidetza-prozesu egin zirela, eta 21 partaidetza-prozesu 2017an; eta azken edizio honetan 5.800 herritarrek baino gehiagok parte hartu zutela. Horien guztien lanari esker, Gobernuak 1.215 proposamen jaso zituen guztira, eta horietarik 874 onartu zituen.

Pellejerok adierazi duenez, Gobernuak Administrazioan Herritarren Partaidetza bultzatzeko plana onartu zuen iaz zuen. “Plan honexen barruan kokatu behar dira esperientzia pilotuak, eta horien artekoa dugu gaur haurren arloan aurkezten ari garena, baita luze gabe etorkinekin, emakumeekin nahiz gazteekin batera garatuko ditugun beste esperientzia sektorial batzuk ere”.

Lehen jardunaldiko programa

Lehendabiziko jardunaldia bihar izango da, ekainak 19, Printzearen Gotorlekua Gazteen Egoitzan, eta gehienez hiru pertsonak parte hartuko dute Talde Eragile bakoitzean, guztira 18 pertsona inguru bilduz. Herritarren Arreta eta Partaidetzarako Zerbitzuaren ordezkari baten parte-hartzea ere aurreikusi da, partaidetzak tokiko kudeaketan duen garrantzia ezagutzera emateko.

Gainera, UNICEFen ordezkariak Haurrekin Adiskidetsuak diren Hirien Sarea aurkeztuko dute, eta Iruñeko Udaleko kideek nafar hiriburuko Haurren Plana lantzeko gauzatutako prozesua emanen dute ezagutzera.

Jardunaldi honetarako aurreikusita dagoen programa goizeko 10:00etan hasiko da, herritarren partaidetzak tokiko esparruan duen garrantziari buruzko ekitaldi batez; 20 minutu geroago, UNICEFen ordezkariak HAH zigilua eta haurren partaidetza aztertuko dituzte, eta jarraian, egokitzeko prozesuaz arduratuko den taldea aurkeztuko da. 10:45ean, udalerrien izenean parte hartuko duten pertsona eta kargudunen aurkezpen laburra egin eta prozesu honetan parte hartzeko arrazoiak azalduko dituzte, ekimen honen bitartez lortu nahi dituzten helburuak aztertzeaz gain.

Geroago, laguntza prozesua aztertuko da, baita helburuak, aplikatu beharreko metodologia eta lortu beharreko emaitzak ere; udalek haur eta nerabeekin zerikusia duten gaiei buruzko errealitatea ezagutzera ematen lagun dezaketen datuak eskainiko dituzte. Eguerdiko 12:00etako atsedeenaren ondoren, haurren eta gazteen partaidetzari buruzko sarrera batez ekingo diote berriz ere lan-saioari, honako gaiak aztertzeko asmoz: kontzeptuak, gakoak, haur eta nerabeen testuinguru sozial eta kulturala. Ondorengo azalpenean, tokiko haur eta gazteen partaidetzarako organoa abian jartzeko aliantza eta baliabideen mapa aztertuko da.

Bukatzeko, prozesuan erabili beharreko lan eta komunikazio tresnen aurkezpena egingen da; horien artean, “barne sitea”, edukiak, dokumentazio interesgarria, aktak, ariketak eta jarraibideak zein erreferentziazko pertsonen laguntzaz aholkularitza ez-presentziala jaso eta zalantzak argitzeko mekanismoa biltzen dituen utilitatea. Harremanetan jartzeko moduak ere zehaztuko dira.

Jardunaldiaren bukaeran, bigarren lan-saioaren data finkatu eta saioari buruzko ebaluazioa egingo dute partaideen artean.